

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 1703/2019 FORU AGINDUA, maiatzaren 31koa, 2019. urtean Bizkaiko lurralde historikoan kirol jarduera federatuak antolatzeko kirol talde eta erakundeentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 12ko 18/2019 Foru Dekretuko Epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzen dituen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 12ko 18/2019 Foru Dekretuak 2019. urtean Bizkaiko lurralde historikoan kirol jarduera federatuak antolatzeko kirol talde eta erakundeentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten ditu (58. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, martxoaren 25eko).

Foru dekretu arautzaile horren 11. oinarrian xedatutakoaren arabera epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 12ko 18/2019 Foru Dekretuak araturako diru-laguntzetarako Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea. Honako hauek osatuko dute epaimahai hori:

- Epaimahaiburu titularra:
 - Miren Arantza Mardaras Izarza anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua.
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Miren Zuriñe Antoñana Ozaeta anderea, Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Asier Intxausti Urionabarrena jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Federatua-
ren Ataleko burua.
 - M.^a Carmen Lozano Delgado anderea, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak
(ASFEDEBI) izendatua.
- Ordezko epaimahaikideak:
 - Mónica de la Fuente Sanchez andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kiroleko
Ataleko burua.
 - Agustín Ruiz Larringan jauna, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak (ASFEDE-
BI) izendatua.



— Idazkari titularra:

- Igor Estankona Bilbao jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko funtzionaria, ahotsa izango duena baina botorik ez.

— Idazkari ordezkoa:

- Francisco Javier Santos Garay jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko funtzionaria, ahotsa izango duena baina botorik ez.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra.—*Indarrean jartzea*

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 31n.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA